


EAEko gazteen %16 bizikletaz mugitzen dira gutxienez astean behin *Ehuneko hori aurreko urteetako baino garaia da*

2012ko irailaren 16tik 22ra [Europako Mugikortasun Astea](#) ospatzen dela eta, EAEko gazteek bizikletari ematen dioten erabilerari buruzko datu batzuk aurkezten ari da [Gazteen Euskal Behatokia](#).

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %10ek diote egunero edo ia egunero bizikletaz mugitzen direla. Horiez gain, astean behin edo gehiagotan bizikleta erabiltzen dutenak (%6) kontuan hartzen baditugu, ikus dezakegu gure erkidegoan gazteen %16 gutxienez astean behin mugitzen direla bizikletaz.

Portzentaje hori pixka bat handitu da azken urteotan: [2004an](#) %10koa bazen, [2008an](#) %11koa izatera pasatu zen eta 2012an %16koa da.




Mutilek neskek baino maiztasun askoz handiagoz erabiltzen dute bizikleta. Mutilen %22k gutxienez astean behin erabiltzen dute bizikleta; nesken kasuan, aldiz, portzentaje hori %9koa da.

Bizikleta erabiltzea ohikoagoa da gazteen artean: 15 eta 19 urte bitarteko gazteen %19k gutxienez astean behin erabiltzen dute, 20 urtetik gorako artean, ordea, %14k-%15ek erabiltzen dute bizikleta maiztasun horrekin.

Taldeen arteko ezberdintasun handiena bizilekuan antzeman daiteke: Araban gazte gehiagok erabiltzen dute bizikleta astero (%29k) Gipuzkoan baino (%25ek) baina, batez ere, Bizkaian baino gehiago, azken lurralde honetan %6k erabiltzen baitute gutxienez astean behin.

Bizikletaz gutxienez astean behin mugitzen diren gazteak, bizi diren lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko Gazteak 2012)

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

